

UNRWA Euskadirentzako Susanna Martinen komiki bat

GAZA AMAL

GAZAKO ZERRENDAN EMAKUME
AUSARTEN ISTORIOTXOAK



erikidago balzardoa
unrwa
euskadi



erkidego batzordea

unrwa
euskadi

GAZA AMAL

GAZAKO ZERRENDAN EMAKUME
AUSARTEN ISTORIOTXOAK

UNRWA Euskadirentzako Susanna Martinen komiki bat



Ilustrazioa: Susanna Martín
Testuak: Susanna Martín eta UNRWA Euskadi
Edizioa: Susanna Martín
2016ko urria, Bilbo

UNRWA Euskadi/Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia



Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzarekin egin da.



Argitalpen honen edukiak ez dute zertan bat etorri behar Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren iritziekin.

CC by-SA lizentziapean argitaratutako edukiak: Creative Commons



SARRERA

PALESTINA ESKUALDEA Otomandar Inperioaren barruan egon zen lau mendez, Lehen Mundu Gerrara arte. 1922.

urtetik Britainia Handiak izan zuen aginte politikoa palestinar lurraldean. Aldi horretan, judutarren immigrazio-fluxua izan zen eta, ondorioz, gatazka ugari sortu ziren. 25 urtez britainiarren agindupean egon ondoren, Palestinako egoera demografikoa erabat aldatu zen: eroldan 725.000 bizilagun zeuden 1922an, eta 1946aren amaieran ia 1.850.000 ziren. Biztanleria judua 56.000 lagunekoa zen I. Mundu Gerra amaitzean, eta 1946an, berriz, 608.000 biztanle ziren.

1947an, indarkeriazko egoera betean, Britainia Handiak Nazio Batuen esku utzi zuen Palestinako arazoa. Egoera horretan, estatu askoren iritiz, lurraldea zatitu eta estatu arabiar bat eta estatu judu bat eratzea zen konponbiderik onena. Baina beste batzuek ez zuten zatiketarik nahi. Azkenean, 1947ko azaroaren 29an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 181 (II) ebazpena onartu zuen, Palestina hiru zatitan banatzea proposatzen zuena: estatu judua, estatu arabiarra eta nazioarteko erregimen baten pean egongo litzatekeen Jerusalem.

Haatik, 1948ko maiatzaren 14an, Ben Gurion-ek, gero-ra Israelgo lehen ministro izango zenak, Israelgo Estatu aldarrikatu zuen. Alde bakarreko aldarrikapena izan zen eta estatu mugakideekin gerra piztu zen: Jordania, Egipto, Libano eta Siriarekin. 1949an aurkarien arteko armistizio-akordioa lortu zen. Israelek Palestinaren zatirik handiena bereganatu zuen, Jordaniak okupatutako Zisjordania eta Egiptok hartutako Gazako Zerrenda izan ezik. Gerra horretako armistizioan finkatutako mugari *lerro berdea* esaten zaio.



Gerraren ondorioz biztanleria palestinarren exodo masiboa gertatu zen, *Nakba* izenarekin ezagutzen duguna ("hondamendia" arabieraz). Horrela, 1949. urtearen bukaeran, 726.000 lagun inguruk, Palestinako bertako biztanleriaren erdiak, euren etxeetatik alde egin zuten, inguruko herrialdeetan (Jordanian, Libanon eta Sirian) eta Palestinako beste eremu batzuetan babeste aldera (gaur egun Zisjordania eta Gazako Zerrenda esaten dieten horietan).

Gerrak ekarritako larrialdi-egoeraren aurrean, 1949ko abenduaren 8an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak UNRWA sortzea onartu zuen, Palestinako biztanleria errefuxiatuari laguntza humanitarioa, aterpea, babesa, hezkuntza, osasuna eta bestelako gizarte eta garapenerako zerbitzuak eskaintzeko berariazko Agentzia. Agentziak

1950eko maiatzaren 1ean ekin zion lanari, gaur egunera arte

berrituz joan den hiru urterako mandatuarekin. Ordutik,

UNRWak bost eremutan egiten du lan (Jordanian, Libanon,

Sirian, Gazako Zerrendan eta Zisjordanian), eta Palestinako

5 milioitik gora errefuxiatuari eskaintzen dizkie zerbitzuak.

Jendetza hori da, hain zuzen, erbestean denbora gehien

daraman biztanleria-talde errefuxiatua. Bost eremu

horietan UNRWak kudeatzen dituen 58 errefuxiatu-

eremuetan bizi dira aipatutako biztanleetatik milioi

eta erdi lagun.




Arabiarraren eta israeldarren arteko 1967ko gerraren amaieratik, Zisjordania eta Gazako Zerrenda Israelen okupazio militarren pean daude, hori dute erregimen juridikoa, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren aurkakoa.

1993an, Israeliek eta Palestina Askatzeko Erakundeak (PAE) Oslon sinatu zituzten Itunetan, bakea lortzeko bide-orria finkatu zuten, eta baita epe jakin batzuk ere Israel lurralde okupatuetatik joan zedin. Akordioen harira Palestinako Agente Nazionala (PA) sortu zen, administrazio-erakunde autonomoa, Israeliek utziko zituen lurraldeak modu mugatuan eta behin-behinekoan gobernatzeaz arduratuko zena. Okupatutako Palestinako lurraldetik agintari israeldarrek poliki-poliki alde egiten joateko sinatu zituzten Osloko Itunak, baina hori ez da inoiz gertatu.

Israelen okupazio-politikak eta jarduerak direla medio, Palestinako errefuxiatuek etengabe jasaten dute giza eskubideen urraketa.

Biztanleriak nahitaez alde egin beharra areagotzen ari da eta jendeak bere etxeak galtzen ditu, arrazoi hauek medio: Israelgo armadak

eta kolonoek Zisjordanian eragiten duten indarkeria, legez kanpoko kokalekuen eraikuntza gero eta handiagoa, lurralde barruan mugitzeko murrizketa fisikoak (Hesia, Israelgo militarren kontrol guneak, etab.) eta burokratikoak (toki jakin batzuetara sartzeko baimenak, etab.), eta sarrerak lortzeko etxeak eta egiturak eraistea. Testuinguru horretan, biztanleriaren askotariko behar humanitarioei egin behar zaie aurre, eta gero eta gehiago dira laguntza humanitarioaren mendeko diren bizilagunak.



Gazako Zerrenda

Gazako Zerrenda, kostaldeko gune txikia, 1,8 milioi lagun bizi ditu, eta horietatik 1,2 milioi Palestinako errefuxiatu-estatusa dute. Munduan den biztanleria-dentsitate handienetakoa du (4.000 bizilagun baino gehiago km² bakoitzeko). Palestinako milioi erdi errefuxiatu baino gehiago bizi dira UNRWAK Gazan kudeatzen dituen 8 esparruetan.

2005. urtera arte Israelen fisikoki okupatuta izan zuen Gazako Zerrenda. Baina urte horretan Israelen bere armada erretiratu zuen bertatik, eta kolonoen bi kokaleku desegin zituen. Ordutik aurrera modu eraginkorrean okupatuta du Zerrenda, aireko, itsasoko eta lurreko espazioa kontrolatuta eta gaur egun indarrean dirauen blokeo sozioekonomikoaren bidez.

Israelen eta Egiptoren kontrolpean dauden hiru muga-pasabidek oztopatzen dute Gazatik kanporako bidea: Erez eta Kerem Shalomekoek (Israel) pertsonak eta ondasunak kontrolatzen dituzte; Rafahkoak (Egipto), berriz, pertsonak. 2007ko ekainaz geroztik itxita dago palestinar guztientzat Israelerako mugako Erezeko pasabidea, larrialdi medikoetarako eta nazioarteko erakundeetako langileentzat izan ezik. Egiptorekiko muga dagoen Rafahko pasabidea, berriz, aldi behin zabalitzen dute, Egiptoko agintarien onepenezkin betiere, bai sartzeko, bai irteteko.

Blokeoa hasi zuenetik, Israeliek hainbat eraso militar egin ditu Gazako Zerrendaren aurka, eta palestinar biztanleen eta bereziki emakumeen bizi-baldintzak nabarmen kaltetu dituzte. 2008ko abendua eta 2009ko urtarila bitartean Israeliek "Berun urtua" izeneko eraso militarra egin zuen Gazan, hiru astez luzatu zen eta 1.400 palestinar hil eta 5.000 zauritu zituen. 2012ko azaroan, berriz, "Defentsa-zutabea" eraso militarra egin zuen, zortzi egunetan 158 hildako, 1.269 zauritu eta



12.000 lagun bizi-leku-aldaketa eragin zituen. 2014ko uztailean eta abuztuan "Hegi babesgarria" izeneko eraso suntsitzailerak egin zuen Israeliek Gazan. 50 egunetan, 1967tik izandako etxean eta azpiegitura zibilen eraispenik handiena burutu zuen. Erasoak 1.492 zibil palestinar hil zituen eta 1.500 haur utzi zituen umezurtz, guraso bat edo biak gabe, adineko ugari gelditu ziren bakarrik eta ia 800 emakume alargun. Beste 11.200 lagun zauritu zituen. Eraso horretan 151.000 etxe baino gehiagotan kalteak eragin zituzten eta beste 18.000 suntsituta gelditu ziren. 2015. urtearen amaieran, bizilekua aldatu behar izan zuten familietatik % 15 bakarrik itzuli ziren konpondutako euren etxeetara. Beraz, 90.000 lagunek beste leku batzuetan bizitzen jarraitzen zuten, laurdenak kaltetutako euren etxeen hondakinen artean. Erasoaren ondorioz, Gazako helduen herena eta adin txikikoen erdia trauma osteko estresak jota daude.

2017an 50 urte beteko dira okupazioa hasi zenetik eta 10 urte blokeoa abian denetik. Israeliek Gazako Zerrendan ezarrita duen blokeoak laguntza humanitarioaren menpe utzi ditu bertako biztanleen % 80.

Gazako biztanleek murrizketak dituzte ondasunak esportatu eta inportatzeko, pertsonen joan-etorritako, arrantzarako lurralde-urak erabiltzeko (6 itsas milia dituzte, Osloko Itunetan 20 hitzeman bazizkieten ere), eta baita laborantzarako lurrak eskuratzeko ere. Egoera horrek garapen ekonomikoa eragozten du, inbertsioa urrunarazi, biztanleria geografikoki eta sozialki isolatzen du, eta langabezia maila altuak, elikadura-ziurgabetasuna eta laguntzekiko mendeotasuna iraunarazten ditu. Horrenbestez, aurrekaririk gabeko krisi humanitarioko egoera sortu da Gazako Zerrendan.

900.000 lagun baino gehiagok pairatzen dute elikadura-ziurgabetasuna, eta Gazako biztanleen % 40 inguru erabateko pobrezian bizi da, egunean 3,5 dolar baino gutxiagorekin. Langabezia-tasa % 41,5koa da Gazako Zerrendan, eta arazoa bereziki larria da emakumeen artean (% 63,6 langabea da). Bestalde, oso baxua da Palestinako emakumeen partaidetza-tasa lanindarrean (% 19,4), gizonetzkoenarekin alderatuta (% 71,5). Halaber, emakumeek eskura dituzten lanpostuetako asko sektore ez-formalekoak dira; hau da, nekazari, jostun edo elikagaien saltzaile aritzen dira, lan-baldintza duinik gabe.

Gazako Zerrendan 90 litro ur kontsumitzen da eguneko eta pertsonako, OMEk gomendatzen duen 100 litroko mailaren azpitik, beraz. Gainera, uraren kalitatea eskasa da. Gaza urez hornitzen duen akuiferoaren % 90 baino gehiago kutsatuta dago, ez ditu betetzen giza kontsumorako nazioarteko estandarrak; 2020rako akuiferoak duen kaltea itzulezina izango dela aurreikusi dute. Ondorioz, txorrotako ura asteko egun batzuetan eta ordu jakinetan bakarrik dago eskuragarri.

Erregai-eskasiak egunean 18-20 orduko argindar-etenaldiak eragiten ditu, eta horrela oso zaila da oinarrizko zerbitzuak eskaintzea. Argindar-etenaldiek, funtsezko botiken faltak eta osasun-laguntzarako ekipamenduak sartzeko zailtasunak arriskuan jartzen dute Palestinako biztanleen osasuna, batez ere emakumeena, haurdunaldiarekin lotutako arriskuak direla eta.

Okupazioaren eta blokeoaren ondorioak ez dira berdinak gizonentzat eta emakumeentzat, mutilentzat eta neskentzat. Izan ere, egoera horri emakumeen aurkako beste bazterkeria modu batzuk gehitzen zaizkio, bizi diren gizarte patriarkalaren ondorioz; eta genero-indarkeria, herentziarako eta jabetzarako eskubidea ukatzea edo mugatzea, nesken ezkontza goiztiarra eta beste pairatu behar izaten dituzte. Horrela, emakume batek gizonak jasoko lukeen herentziaren erdia edo herena jasotzen du, esaterako.

Aurrean dituzten ezbeharren gainetik, emakume palestinarrek beren gizartea eusten eta eraikitzen duten funtsezko zutabeak dira.

★ ★ ★




*Amal "itxaropena" esan nahi du arabieraz.



*Amal eta Badearen nebak Gazako zerrendaren aurkako 2014ko udako "Hegi babesgarria" ofentsiba militarrean hil ziren. 2.200 pertsona hil ziren, horietariko 1.492 zibilak (538 ume barne) eta 11.321 pertsona zaurituak izan ziren. 50 eguneko iraupenarekin, ofentsibaren ondorioz 500.000 palestinar desplazatuak izan ziren Gazako zerrenda barnean. Israeldar alderdian 71 pertsona hil ziren, horietariko 5 zibilak (ume 1) eta dozena bat zibil zaurituak izan ziren.



*Pertsona eta familia askok Gazako zerrendatik irten ahal izateko bisak bilatzen dituzte. Gaur egun 30.000 pertsona daude itxarote-zerrendan Egipto eta Gaza arteko Rafahko pasutik irten ahal izateko.



*Hura "askea" esan nahi du arabieraz.





EMAKUME
BATEK EZIN DU
BIZIKLETAN
IBILI.

PSST!

JAITSI
HORTIK,
POLIT HORII!

ETA JESARRI
ZAITEZ NIRE
GAINEANI
KAR KAR KARI!

FIUUI
NESKAI!

EGUNERO
BERDIN, GAZAN EZ
DAGO BIZIKLETAN
DABILEN BESTE
NESKARIKI!



O!



PSST,
PSST!

TST,
TST!



ZER ZABILTZA,
ERGEL HORII!

EMAIDAZU
BIZIKLETA
HORII!

BI
HORIEK...

KAR KAR
KAR



NIRE SEMEA HIL EGIN
DA ETA BERE ONDASUNAK
FAMILIARENAK DIRA ETA
EZ BEREAKI ALDE
HEMENDIKI!

EZIN DIOZUE
ETXEA KENDU,
BEREA ERE
DA ETA!

GOAZEN AHIZPA,
AMAREN ETXERA
ETORRI ZAITEZTE,
NEBA AHMED ETA
NIREKIN.



JABALIA ERREFUXIATU-EREMUA.



GAZA
WOMEN
GRADUATES
ASSOCIATION







*Gazako zerrendan ez dago minbiziarentzako tratamendua emateko ekipamendurik. Gazatik irteteko eta Jerusalemeko edo Zisjordiariako ospitaletan tratamendua jasotzeko baimena eskatu behar da.

KHADIRA قادرة



KHADIRA*
DEITZEN NAIZ
ETA BERROGEITA
BAT URTE DITUT.

NAKBA** BAINO LEHEN
NIRE FAMILIA ASSAWAFIREN BIZI
ZEN. RAFAHN JAIO NINTZEN.



2014KO GERRAREN
ONDORIOZ
ENTZUMENA GALDU
NUEN... EUH...
ORAIN DELA 2
URTE ERDI GOR
NAGOELA.

ESKERRIK ASKO
AURKEZPENAGATIK,
KHADIRA.



ETA BI
ALABA ETA
SEME BAT
DITUZU.

BAI, ETA
SENARRA.

NOLA BURURATU
ZITZAIZUEN GOXOAK
SALTZEAREN IDEA?



BENO... DENAK DITUGU
ENTZUMEN ARAZOAK ETA
ZAILA DA LANA AURKITZEA ETA
FAMILIA AURRERA ATERATZEA.



ONDORENGOA
PENTSATU GENUEN:
ZER DAKIGU EGITEN?
KOZINATZEA. ETA
GUSTATZEN ZAIGUNA
GOXOAK DIRA.
PALESTINAKO GOXO
TIPIKOAK.

ZURE SENARRA
ARRANTZALEA ZEN.

BAI.



ETA BENO... GAINERA NIRE SENARRAK EZ
DAUKA LANIK ETA AURRERA JARRAITU BEHAR
DUGU. EZIN DUGU GOSERIK PASA. EZ BERRIRO.

GASAN URIK GABE ETA
GASA FALTA DENEAN
SUKALDATZEKO NOLA
KONPONTZEN ZARETEN
KONTATU BEHAR DIDAZUE.

UI, GURE
TRIKIMAILUAK
DITUGU, URA EGOSTEN
DUGU ETA...



BLA
BLA

BLA
BLA

A ZER GAUZA,
ITSASOALDEAN BIZI
GARA ETA EDATEKO
URIK GABEI




KHADIRA,
HARTU HAU.

?




*Khadira "sendoa" esan nahi du arabieraz.

**Nakba (katastrofea), 1948ko gerra arabiar-israelarraren ondorioz gertatutako populazio palestinarren exodoari deitzen zaio.










*Hazeem "trumoia" esan nahi du arabieraz.



*Lerro berdea 1948ko gerra arabiar-israeldarraren armistizioan ezarritako muga da.





AMAIERA

*Nur "argia" esan nahi du arabieraz.

